

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALETXEA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Zerbitzua

Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean (HAPO-n) egin nahi den egiturazko aldaketa bati, Ibaia kirol hiria izenekoan antolaketa- eta kudeaketa-eremu berri bat sortzeko, kirol ekipamendu berri bat ezarri eta definitzearen

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko HAPOn egin nahi den egiturazko aldaketa bati, Ibaia kirol hiria izenekoan antolaketa- eta kudeaketa-eremu berri bat sortzeko, kirol ekipamendu berri bat ezarri eta definitzearen. P. C. G. arkitekto zuzendariak eta A. L. R. eta P. P. G. arkitekto laguntzaileek idatzi dute, eta Deportivo Alavés SAD Sozietateak sustatu du.

2. Aldaketaren inguruko agiriak eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea 45 egun balioduneko epean, ALHAOean eta Araban zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, interesa duen edozein entitatek edo pertsonak agiriak aztertu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

3. Hasierako onspena emateko erabaki hau jakinaraztea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio batzarrei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

4. HAPOren egitura-aldaketa honi hasierako onspena emateko dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa bidaltzea eraginpeko administrazio publikoei eta alde zuzeneko kontsulta egin zaien pertsona interesdunei, egokitzat jotzen dituzten txostenak eta alegazioak egin ditzaten:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saila, Natur Ondarearen Zerbitzua.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.
- Ekologistak Martxan Araba.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarteak.
- GADEN (Natura Defendatu eta Ikertzeko Arabako Taldea).

5. HAPOren egiturazko aldaketa azaltzeko saio publiko bat antolatzea eta plangintzarako aholku kontseiluari eskatzea HAPOren egiturazko aldaketari buruzko txostena egin dezan, jendaurreko erakustaldia egin bitartean.

6. URA-Uraren Euskal Agentziari txostena egiteko eskatzea, Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai -Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25-, adierazitako apean eta dokumentazio teknikoa hurrengo estekan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-ibaikirolhiria.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 25ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE